

23/10/2009

'Sagar eta gaztain biltzea' tailerra egongo da bihar Igartubeiti museoan

Saskigintza, abarkak, filmak, marmelada, kirikoketa... Orain arte tailer desberdinak ospatu dira Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoan, eta hurrengoa familiei zuzendutako sagar eta gaztain biltzea izango dugu bertan.

Besteetan bezala bihar arratsaldean aurrera eramango da tailer hau eta honetan nahi duten gaztetxo eta guraso guztiek hartu dezakete parte. Larunbateko tailerrak interpretazio zentruak aurrera eramaten dira normalean, baina batzutan kalera irtetzen dira gaztetxoak eta bihar hauetako egun bat izango da, horrela, eguraldiak laguntzen badu, arratsalde interesgarri batez gozatzeko aukera izango dute parte hartzaileek.

Museoak antolatzen dituen ekintzen artean familientzako tailer didaktikoak ditugu, eta hauetan leku guztietako gazte eta familiek parte hartu dezakete. Baserriaren munduaren inguruan kokatzen dira beti gaiak, eta jolastuz edo eskulan desberdinak eginez, gure arbasoen bizimodua hobeto ezagutzeko aukera zabaltzen zaie gazte eta helduei.

Beraz, arratsaldeko 16:30etan hasiko da tailerra, non bi ordutan gaztainak eta sagarrak nola jasotzen diren ikasi eta praktikatuko dute. Bertan parte hartu nahi dutenek aldezturik izena eman beharko dute: Igartubeitin bertan, 943 72 29 78 zenbakian; igartubeiti@gipuzkoa.net helbidean edo web orrian. Animatu!